

# Algortako Giza Jantokia ikustera

Abenduaren 22an, 4. mailako, erlijio ikasleak eta dibertzifikazioko ikasleak, Algortako Giza Jantokia ikustera joan ginen.

Egunero 18-20 pertsona inguru jantoki honetara joaten dira, eguneko bazkari on bat hartzeko.

Algortako Karitate Alabek daramate 125 urte Algortan eta betidanik, pertsonak joaten ziren janari a eskatzen. Bazkaria emateko catering zerbitzu batetik ekartzen dute. Baina gozari zerbitzua eta afaltzeko poltsa bat ere prestatzen diete, beharra dutenei.

Udaletxeak eta persona pribatuek diru-laguntzak ematen dituzte jantoki hau ornitzeko eta mantentzeko.

Jantoki honetan 4 pertsona ibiltzen dira egunero lanean: 2 Karitate alaba eta 2 kanpokoak.

Komentatu ziguten persona hauek, janariaz aparte, behar dutena dela norbait beraietaz kezkatzea eta arduratzea.

**IKASLEAK OSO ADI EGON ZIREN ETA UNKITUTA ATERA ZIREN!!!**



